

Abian da Bizilabe Tolosaldea, eskualdeko gazteen artean zientzia eta teknologia bultzatzeko aisialdiko ekimen berria

- 2020ko urritik 2021eko ekainera bitartean, 10-14 urte bitarteko gazteek zientzia eta teknologia proiektuak egiteko aukera izango dute ikertzaile profesionalen eta hezitzaileen laguntzarekin.
- Ikasturtean izena emateko epea zabalik da jada.

(Tolosaldea, 2020ko ekainak 11). 2020-2021 ikasturtean, Bizilabe Tolosaldea aisialdi-eskaintza jarriko da martxan Tolosaldeko udalen eta Tolosaldea Garatzenen zein Elhuyarren eskutik. Eskualdeko gazteek (2007-2010 jaioak) **zientziarekiko eta teknologiarekiko interesa eta motibazioa, ekintzailetasuna eta sormena** landuko dute bertan. Horretarako, tailerretan parte hartu eta proiektuak egingo dituzte, STEAM (Science, Technology, Engineering, Art and Mathematics) arloetan profesionalak diren emakumeen eta hezitzaileen laguntzarekin, haien gaitasunak garatu eta jabekuntzan aurrera egiteko.

Bestalde, **eskualdeko industria sektorea sustatzea**, eta bestetik, teknologiaren eta teknikaren alorrean kualifikazio handiko profesionalak sortzeko apustua egiten du proiektuak.

Bizilabe, Elhuyarrek 2011tik martxan duen gazteentzako ikerketa zentroen sarea da. Bilbon, Nerbioi-Ibaizabaleko herrietan eta Debebarreneko herrietan du eskaintza, eta, esan bezala, 2020-2021 ikasturtean, Tolosaldera iritsiko da. Proiektua abiatzeko, eskualdeko bi hirigune nagusietan irekiko dira Bizilabe zentroak, Tolosan eta Villabonan, alegia. Tolosako kasuan, Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuak berri berri duen instalazioetan gauzatuko dira ekintzak eta, Villabonako kasuan, Gaztelekuan egingo dira. Bietan eskaintza bera izango da.

Hona hemen xehetasunak:

TOLOSA

- **NON:** Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutua. Santa Luzia, 17, 20400 Tolosa
- **NOIZ:** Ostegunetan
 - 2009-2010ean jaioak: 17:15 – 18:45
 - 2007-2008an jaioak: 18:45 – 20:15
- **PREZIOA:** 10€ hilean

VILLABONA

- **NON:** Gazteleku. Nagusia 79. 20150 Amasa-Villabona
- **NOIZ:** Asteartetan
 - 2009-2010ean jaioak: 17:15 – 18:45
 - 2007-2008an jaioak: 18:45 – 20:15
- **PREZIOA:** 10€ hilean



Izen-emateak zabalik!

Zabalik da jada Bizilabe Tolosaldea 2020-2021 eskaintzan izena emateko epea, Bizilabe Tolosaldearen webgunean: <https://bizilabe.elhuyar.eus/eu/tolosaldea>

Guztira, **30 plaza** eskainiko dira Tolosan eta beste 30 Villabonan. Izen-emateek eskainitako plaza kopurua gaindituz gero, itxaron-zerrenda osatuko da. Bestalde, izena ematerako orduan, honako **lehentasunezko irizpideak** kontuan hartuko dira: izen-emateen hurrenkera, genero-aniztasuna (40/60 ordezkartza) eta eskualdeko herrien arteko aniztasuna, biztanle kopurua kontuan izanik (plazen herena Tolosarentzat izango da, beste herena Villabonarentzat eta beste herena gainerako herrientzat).

Bizilabe Tolosaldearen inguruko informazio gehiagorako eta zalantzak argitzeko:

- <https://bizilabe.elhuyar.eus/eu/tolosaldea>
- bizilabe.tolosaldea@gmail.com
- 688 632 691